

ataria

Xarea eta Irura: berriz maitemintzen ari den bikotea

Merkataritza

*Ehun urte baino gehiagoko historia idatzita, betiko
itxi du atea Tolosako Malumbres arropa dendak.*

2018-09-27

1.116. zenbakia

107.6 fm

www.ataria.eus



Gipuzkoako

Bertsolari Txapelketa
2019

Irailak
28 17:00
Zumarraga- Zelai Arizti
Urretxu. Aretoa

Nerea Elustondo Plazaola
Eli Pagola Apezetxea
Mikel Tapia Aierbe
Iñigo Izagirre Urteaga
Unai Mendizabal Jauregi
Iker Ormazabal Ojeda
Aurkezlea: Iker Iriarte Iribar



Irailak
29 17:00
Elgoibar. Herriko Antzokia

Iñaki Gurrutxaga Zubimendi
Unai Gaztelumendi Arandia
Endika Igartzabal Murua
Jokin Uranga Isuskiza
Ane Labaka Mayoz
Eñaut Martikorena Lizaso
Aurkezlea: Ane Ezenarro Beristain



Sapa, Hmong etniaren lurraldea

Motorren kaosa, paisaia ikusgarri, bero itsaskor, jende abegikor, janari goxo eta gehiagoren koktela da Vietnam. Naturala den edo kultura ezberdin baten bila bidaiatzen duen orok goza dezake bertan. Hirietako zalapartatik aterata, ikaragarritzko ikuspegiekin egin daiteke topo. Iparraldean, bada lurralde benetan interesgarri bat: Sapa, Hmong etniaren lurraldea.

Hmong jatorri txinatarra duen komunitatea da, Vietnamgo gerrara joateko errekutatu zutena. Hitz gutxitan esanda, garatu gabeko herrialde txiroa da: arroz-so-roek, mendiek, pobreziak, analfabetismoak eta tradizioak osatzen dutena. Emakumeen lurraldea da; langilea, alaia eta koloretsua. Hmonh hitzak «herri askea» esan nahi du, eta horrela bizitzeko borrokan dihardute.

Azken urteetan gero eta ezagunagoa bihurtu den etnia da eta, hortaz oharturik, turistak etxean hartzeko aukeraz baliatu dira. Hori horrela, udara honetan bertan izan garrenontzako ere aukera paregabea izan da, beraien herria eta kultura gertutik ezagutzeko, etxean bezala sentitzeko.

Azken urteetan gero eta ezagunagoa bihurtu den etnia da eta, hortaz oharturik, turistak etxean hartzeko aukeraz baliatu dira.



**IZARNE OLANO
KALAKARIA**

Hmong emakumeak dira herrietatik hirira oinez joan eta etxean hartuko dituzten turisten bila ibiltzen direnak. Emakume hauek ezagutzen erraza da, eskuz egin-dako arropa koloretsu eta bereizgarriekin, inoiz moztu ez duten ilea bilduta, eskuak telaren tintaren arrastoaz zikinduta eta pitxi ugarirekin joaten baitira.

Beraien seme-alabak bezalaxe zaindu gintuzten gu ere, bi egunez: herrirainoko treking-ean arroz-soroak erakutsiz, beraien etxeetan lo egitera gonbidatuz eta familiarekin batera otorduak eginez. Kontatu ziguten gizonezkoak arroz-soroetan aritzen direla lanean, urte osorako familiarentzako nahikoa uza egon dadin. Emakumeek, gazte ezkontuta, familiarikoz zaintzaren ardura hartzen dute, eta goizeko ordu txikietatik gauera arte lan egiten dute. Azpiegitura falta eta gobernuaren laguntza eza dela-eta, haurrak, eskolaratu

gabeak, turismoak dakartzan etekinei tiraka bizitzera kondenatuta daude.

Honela, beraien bizimodua gertutik bizitu eta kultura, hizkuntza eta ohitura ugari elkarbanatu genuen. Bertan 'Hmong' deritzon hizkuntza gutxitua erabiltzen dute, halabeharrez Vietnamita eta Ingelesa ikasi dituzten arren. Hala, hmong pixka bat ikasi eta euskara irakasteko denbora ere izan genuen.

Gogortasun horrek berezi egiten du Sapako esperientzia. Guztiz gomendagarria!

ARGITARATZAILEA: Tolosaldeko Komunikazio Taldea, SM **LEGE GORDAILUA:** SS-1323-2013 **KOORDINATZAILEA:** Rebeka Calvo Gonzalez
KUDEATZAILEA: Iban Urdapilleta Alkizaletxe **TELEFONOA:** 943 655695 **BEZERO ARRETA:** 943 30 43 46 **WEBGUNEAK:** www.ataria.eus
POSTA ELEKTRONIKOA: ataria@ataria.eus **IRRATIA:** 943 69 80 38 - 687 4100 33 - 107.6 FM **PUBLIZITATEA:** 661678818 - publi@ataria.eus

ATARIAK ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



TOLOSALDEKO KOMUNIKAZIO TALDEA, SM-KO KIDEAK:

BERTAKO
HEDABIDEAK



galtzaundi

berria

Txojarre

bai

Bikain

URTEKO HARPIDETZA KUOTA: 80 €

TOLOSALDEKO ATARIA DIRUZ LAGUNTZEN DUTEN ERAKUNDEAK:

Udalak: Albartzisketa, Aduna, Alegia, Alkiza, Albiztur, Altzo, Amezketa, Anoeta, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania-Goiatz, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa, Amasa-Villabona eta Zizurkil



Gipuzkoako Foru Aldundia



Azaleko irudia:
Irati Urdalleta



Xabier Lizaso piano jotzailea, Andoni Egaña kontalaria eta German Ormazabal piano jotzaileak eskainiko dute 'Eta zer gehiago?'. J.M. BIELSA

BI PIANO JOTZAILE ETA KONTALARI BAT

Tolosako Leidor antzokian, gaur, 20:30ean, 'Eta zer gehiago?' ikuskizuna eskainiko dute German Ormazabal eta Xabier Lizaso piano jotzaileek, batera; kontalari lanetan Andoni Egaña bertsolaria ariko da.

Eneritz Maiz Etxarri

Ez da hitzaldi bat, ez da kontzertu bat, ez da bertso saio bat... Bi piano oholtza gainean, eta bi piano jotzaile: Xabier Lizaso oriotarra eta German Ormazabal tolosarra. Kontalari lanak Andoni Egaña bertsolariak egingo ditu, eta antzerkitik ere badu. *Eta zer gehiago?* galdera berari erantzunak ematera datorren emanaldia da.

Galdera berak elkartu ditu Ormazabal eta Lizaso: eta zer gehiago? Bi musikari, bi bide, bidegurutze bera. Bizitzako bidegurutzeen inguruan osatu dute saioa eta, bi piano jotzaileen bi bi-

deak kontatzea, aitzakia bat baino ez dute izan, entzule bakoitzarengan gogoeta eragiteko.

Xabier Lizasok, UBI ikasketak egiten ari zela, garbi zuen pianoa ikasi nahi zuela, baina gogoan du burumakur esaten zuela: «Lotsatuta eta bel-durtuta esaten nuen pianoa ikasi nahi nuela, banekielako jendearen erantzuna eta jarrera zein izango zen. Barez hasten ziren denak, eta 'zer gehiago egin behar dek' izaten zen galdera». Poloniara joan zen Lizaso piano ikasketak egitera, eta bi urtera: «Polonian zer ikasten nuen galdetzean, pianoa erantzutean, jendeak eskuak burura eramaten zituen, eta sekulako mires-

mena adierazten zuten». Izugarritzko talka izan zen Lizasorentzat: «Gipuzkoan barre egiten zidaten, eta Polonian izar bat nintzen». German Ormazabal piano jotzaile tolosarrari ere antzekoa gertatu zitzaion, pianoa ikasi nahi zuela erantzutean: «Eta zer gehiago?». Emanaldiaren abiapuntua hori izan dute: «Gure egia kontatzea erabaki genuen, pianoarekin gertatu zitzaiguna kontatzea». Ormazabalek gaineratu du: «Pianoa ikastea ondo egon zitekeen, 'baina, serio, zer ikasi behar duzu?' zen galdera. Gaur egun hori aldatzen joango dela pentsatu nahi dut».

Andoni Egañak kontatzen du bi piano jotzaileen historia. Lizasok pianoa soilik ikasi zuen, eta Ormazabalek ere horixe nahi zuen, baina zuzenbidea ere ikasi zuen, «eta zer gehiago egin behar dek?» galderari erantzunez. Bi bide ezberdin hartu zituzten, bata goi mailako kontserbatorioan sartu zen, eta besteak bigarren maila batean utzi zuen pianoa.

Urte asko pasatu ondoren, berriz, pianoak elkartu ditu, eta piano banarekin igoko dira oholtzara eta, batez ere, biek batera joko dute. Ordu asko sartu dituzte elkarrekin, eta musikak eta bi pianoek dute protagonismoa. «Ez da ohiko formatua. Bi piano ez dira oso maiz ikusten, eta badu bere indarra. Kuriositatea piztu nahi izan

dugu, eta aitzakia bat izan da, batez ere, bizitzaren aurrean egiten diren gogoetetan edonor islatua sentitu dadin», kontatu du Ormazabalek. «Bizitza denaren erreflexua egiten dugula esango nuke. Momentu sakonak, alaiak, pentsarazten dutenak, eta barea eragiten dutenak daude».

Andoni Egaña ohiko lanetik aterata dago, «bertso batzuk kantatzen ditu, baina ez gehiegi. Hizlari lanetan jarri dugu. Kontalari», argitu du Lizasok.

Bizitzaren jokoa eta jolasa

Jokoa eta jolasarekin jokatu eta jolas-tuko dute ikuskizunean, bizitza erdigunean jarrita, modu ulerterrazean. Eta guztia, goi mailako musikaz lagunduko dute. «Momentu hunkigarri eta indartsuak daude, eta bi pianoetara jota beste kolore bat du; konplizitatea eta borroka egongo dira», dio Ormazabalek.

Hitzekin ere jolasten dute: bi, bide, bidegurutze, bizitza... «Bi piano jotzaile daude, baina bi dauden tokian ere hiru-garren bat bada, bizitzan gertatzen den moduan», argitu du tolosarrak.

Saiora joateko arrazoiak azpimarratzean: «Ez dut uste aspertuko direnik, ez musikazaleak, ezta ez direnak ere. Batek baino gehiagok esan digu harritu egin direla ikuskizunarekin, eta musika klasikorako interesa piztu diela. Eta musika klasikotik aparte ere asko jotzen dugu, hori kontuan hartu dugu», dio Lizasok. «Andoni Egaña inork ez du ikusi egiten duen paperean, eta horregatik bakarrik ere merezi du ikustera joateak», gaineratu du Ormazabalek, eta «guk disfrutatu egiten dugu, eta orain arte ondo funtzionatu du. Nire herrian ere horrela izango dela pentsatu nahi dut».



LAB-EKO IMANOL SALINASI BABESA ADIERAZIZ

LABeko Imanol Salinasen balizko kartzelaratzeari salatu nahi izan zuten, Tolosan. Prekarietatearen aurkako ekintza batengatik 21 hilabeteko espetxe zigorra eskatzen diote LABeko arduradunari. Iruñeko La Sangiovesa jatetxeko lan gatazkan protesta sindikal bat bozgorailu batekin dinamizatzeari buruz. Helegitea aztertzen ari diren epaileek aurreko epaia berresten badute, sindikalista kartzelaratu izango da. JOSU ARTUTXA

Bizi Nahi elkartetik Guardiara irteera

Ibarra. Ibarako Bizi Nahi elkarteak irteera antolatu du urriaren 10erako, eta izena astelehenetik aurrera eman ahalko da. Arabako Guardiara joango dira, 09:00etan Ibaratik abiatuta. Lehen geldialdia Agurainen egingo dute, eta ondoren Guardiara bitarteko bidea egingo dute. Bazkalordura bitartean denbora libre izango dute nahi dena egiteko. Tirondoa de Haro jatetxean izango da bazkaria. Bazkideek 25 euro ordaindu beharko dute, eta ez direnek 30. Arratsaldean, itzuli aurretik, Gasteizen egingo dute geldialdia.

Otsolarren ikastaroetan izen ematea zabalik

Lizartza. Otsolar dantza taldeak prest du ikasturte berria. 2013tik 2016ra bitartean –biak barne– jaiotakoei euskal dantzak erakutsiko dizkiete, astelehenetan, 18:00etatik 19:00etara. 2012 urtean edo lehenago jaiotakoei, berriz, asteazkenetan, 17:15etik 19:15era. Helduen taldean plaza dantzak erakutsiko dituzte, eta inauteri dantzak ikasteko aukera ere izango da. Izena eman nahi duenak 685 76 54 77 telefono zenbakira deitu beharko du, eta ikasturteari hasiera hilaren 30ean emango diote.



Zure iragarkia argitaratzeko:
661 67 88 18
publi@ataria.eus



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua



Ibarran aurkeztu dute Galtzakomik komiki lehiaketa. IRATI URDALLETA LETE

Galtzakomik martxan dago

06

Azaroaren 25era arte irekita dago lanak aurkezteko epea. Galtzaundiren egoitzara joanda edo postaz bidali daitezke

Irati Urdalleta Lete

Aurten ere Galtzakomik komiki lehiaketa antolatu du Galtzaundi euskara taldeak, Ibarrako Udalarekin elkarlanean. Aurtengoa, 12. edizioa izan da eta 2019 Hizkuntza Indigenen Nazioarteko Urtea denez, desagertzeko arriskuan dauden munduko jatorrizko hizkuntzen aldarrikapena egiteko baliatu nahi dute.

Hala ere, gaia librea izango da, baina hamasei urte bitarteko lanek desagertzeko arriskuan dauden munduko hizkuntzen egoerak oinarri izan beharko dituzte, esaterako, bizikidetzat, nortasunaren aldarrikapena ingurune eleaniztuneari, kulturartekotasunaren aberastasuna...

Komikien gaiez aparte, bete behar dituzten gainerako baldintza guztiak www.galtzaundi.eus webgunean daude. Lanak Galtzaundi Euskara Taldearen egoitzan aurkeztu beharko dira edo postaz Galtzaundi elkarteak Tolosako Nafarroa etorbideko 6. zenba-

kian duen egoitzara bidali. Atzo zabaldu zuten horretarako epea eta azaroaren 25era arte egongo da irekita.

Aurkezten diren lan guzti horiek ikusteko aukera ere egongo da, abenduaren 13tik 20ra, Ibarrako kultur etxean. Sari banaketa ere bertan egingo da, abenduaren 13an, 19:00etan.

Lehiaketa hiru multzotan banatuta egingo da. Alde batetik, hamabi urteko beharagoak daude. Maila horretako lehenak 100 euro eta komiki bilduma jasoko ditu eta bigarrenak, komiki bilduma eta marrazketarako materiala. Hamahiru eta hamasei urte artekoen mailan, lehenengo saridunak 200 euro, marrazketa materiala eta komiki bilduma jasoko ditu. Bigarrenak, berriz, 100 euro eta komiki bilduma. Gainera, bi maila horietan, bosna aipamen ere egingo dituzte eta komiki bilduma jasoko dute. Maila bakoitzeko Ibarrako komiki onenei, berriz, opari txekia eta komiki bilduma emango dizkiete. 17 urtetik gorakoen artean, lehen sarituak 700 euro eta bi lagunentzako afaria jasoko ditu eta bigarrenak, 300 euro eta bi lagunentzako afaria.

Ibarrako Kultura zinegotzia den Nagore Zubillabak azaldu du hamabi

urte igaro direla Galtzaundi euskara taldeak Galtzakomik aurkezpenean egin ziola Ibarrako udalari eta euskara sustatzeko ideia ona iruditu zitzaizela beraiei. «Ez genuen uste horrelako arrakasta izango zuenik, baina, gaur egun, erreferente bat bihurtu da komikigintzan», baieztatu du Zubillagak. Gaineratu du urtetik urtera gero eta partaide gehiago dauzkala eta oso gustura daudela.

Galtzaunditik ere azpimarratu dute, urtetik urtera arrakasta handiagoa edukitzen ari dela Galtzakomik eta datuek ere hori baieztatzen dute. Izan ere, adibidez, iaz 200 lan aurkeztu ziren. Orduan, Euskaraldiaren testuinguruan egin ziren lan guztiak, gaia horretan zentratu nahi izan zutelako. «Modu horretan, komikia landuz, Euskaraldiak emango zuen hori beraien eskuetatik jasotzeko modua izan zen», esan dute. Aurten, berriz, Hizkuntza Indigenen Nazioarteko Urtea delarik, aprobetxatu nahi izan dute lanak gai horretan kokatzeko.

Lana aurkezteko epea irekita dagoenez, atzo aurkeztu zieten egitasmoa herritarrei. Horretarako, Asisko Urmeneta irudigilearen laguntza ere eduki zuten.

Kultur ondarea zaharberritzeko laguntzak emango dituzte

Kultura Sailak 52.908 euroko laguntza emango du, Tolosaldeko kultur ondarea zaharberritzeko eta sendotzeko

Irati Urdalleta Lete

Gipuzkoako kultur ondarea zaharberritzeko eta sendotzeko laguntza batzuk onartu ditu Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura Sailak. Tolosaldeari dagokionez, hiru proiektuk jasoko dituzte laguntza horiek.

Alde batetik, Alkizako Garaikoetxea baserriaren teilatua eta egitura zaharberrituko da. Hain zuzen, baserriko obraren bigarren zatiari ekingo zaio. Baserriak ohikoa ez den egitura daukanez, egitura guztia desmuntatu eta berriz muntatu beharko da.

Beste aldetik, Larraulgo eta Belauntzako udalek ere jasoko dituzte laguntzak. Lehenengoarentzat 4.678 euro izango dira, Txuringadi errotako ubidea zaharberritzeko. Bigarrenak, berriz, 1.340 euro jasoko ditu, zura tratatzeko.

Denis Itxaso Kultura diputatuak azaldu du ondarea babesteko eta hedatzeko politiken barruan kokatzen direla laguntza hauek: «Laguntza hauekin, Gipuzkoako udalerrietan dugun ondare garrantzitsua babestu nahi dugu».



Amaia Ruiz eta Iker Salinas saria jasotzen. ATARIA

Iker Salinas eta Amaia Ruiz garaile Ibarraskan

Iker Salinasek eta Amaia Ruizek bi lagunentzako Madrilerako bidaia eta 300 euroko erosketa txartela irabazi dituzte

Irati Urdalleta Lete

Ibarrako dendetan erosteak saria izan du eta Iker Salinas eta Amaia Ruiz izan dira zortedunak. Ibarrako Merkatarien Elkarteak antolatutako kanpainen parte hartu duten dendek

Ibarraska bat eman dute bertan egingako erosketa bakoitzarekin. Horiek karraskatu eta «Ibarran erosi» esaldia osatu behar izan dute, eta astebate inguruan amaitu da kanpaina. Iker Salinas eta Amaia Ruiz izan dira hori egin ten lehenengoak.

Hain zuzen, bi lagunentzako Madrilerako bidaia bat irabazi dute. Gauak eta gosariak ordainduta izango dituzte eta gainera, 300 euroko erosketa txartela ere emango diete.

atarian jarrita
Goierriko eta Urola Kostako
Hitzetan DOAN

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

Eskelak orain merkeago!

TXIKIA (82mm X 64mm): 100 € • Harpidedunentzat 50 €

HANDIA (124mm X 64mm): 150 € • Harpidedunentzat 75 €

ESKERTZA (38mm X 64mm): 50 € • Harpidedunentzat 25 €

bez barne

ESKELAK • ataria@ataria.eus • Tel.: 943-65 56 95
Astelehenetik asteazkenera 18:30ak arte hartzen ditugu
Ostegunetan 16:00ak arte hartzen ditugu



Asteartean egin zuten ohiko osoko bilkura udaletxean. J.M.

Klimaren larriaz kezkatuta

08

Amasa-Villabonako Udalak gaurko antolatuta dauden mobilizazioetan parte hartzera deitu ditu herritarrak

Jon Miranda

Amasa-Villabonako Udalak ofizialki larrialdi klimatiko egoera deklaratu du, eta aldaketa klimatikoari aurre egiteko neurri eta konpromiso zehatzak hartu ditu, asteartean osoko bilkuran udal gobernuak proposatutako mozioa onartu eta gero.

Besteak beste, udalak aldaketa klimatikoaren eragiten duten faktoreen inguruko diagnosi bat osatu, eta Jasan-garritasun Energetikoaren Legearen

garapena ziurtatzeko lan bat egingo du, zortzi hilabeteko epean. Horrekin batera, udalak prozesu parte hartzaile eta zabal bat bat abiatuko du, herritarrekin eta herriko eragileekin, 2020. urtean klima aldaketa eragiten duten faktoreak gutxitzeko herri plangintza bat osatzeko.

Mobilizazioekin bat

Amasa-Villabonako Udalak bat egin du, larrialdi klimatiko egoera dela medio, bereziki mundu osoko gazteriak bultzatutako gaurko nazioarteko grebarekin, eta herritar guztiak animatu ditu Euskal Herrian edota Gipuzkoan izango diren mobilizazioetan parte hartzera. Asteartean eztabaidatu zen

mozioan, protestekin bat egiterako deia luzatzen den puntuaren aurka bozkatu zuten, EAJ eta PSE-EEko zinegotziek. Patxi Agirre jeltzaleak aipatu zuenez, «klima aldaketaren aurka lan egin behar denean, ez du zentzurik greba deitzeak». Gainerako puntu guztiak aho batez adostu zituzten udalean ordezkaritza duten alderdiek.

Horrenbestez, udalak herritarrei larrialdi klimatikoak duen garrantziaz ohartarazteko eta gai horiek eskatzen duen gizarte sentsibilizazioan sakontzeko helburuarekin, bi jarduera antolatu ditu gaur. 18:30ean, *Antes que sea tarde* dokumentalaren emanaldia izango da, Gurea zineman. Leonardo di Caprio aktore ezagunak eta Martin Scorsese produktoreak ekoiztutako dokumentala da, National Geographic katearentzat. Sarrera doakoa izango da. Bestalde, 21:30ean, herriko argitegia publikoa 10 minutuz itzaliko dute, mundua larrialdi klimatikoan dela irudikatzeko. Udalak herritarrak deitu nahi ditu egitasmo horrekin bat egitera, eta 10 minutu horietan etxetan ere argiak itzalita mantendu ditzaten.

2018ko azaroan, Nazio Batuen Ingurumen Panelak aditzera emandako txostenari egiten dio erreferentzia asteartean onartutako mozioak. Txosten horrek egoera larria dela ohartarazten du, esfortzuak areagotzen ez badira hondamendira goazela azpimarratuz. Amasa-Villabonako Udalak uste du «zibilizazio erronka baten aurrean» gaudela, eta aurrez aurre Eusko Jaurlaritzaren eragin esparru eta ahalmenak gainditzen dituen lanak izanik ere, «partekaturiko esfortzu bat» eskatzen duela. «Prozesu honek gure jendartearen inplikazio askotarikoak eta sakonak ekarriko ditu, bai ehun produktiboan, bai mugikortasunean, bai lurralde antolamenduan, eta horregatik deritzogu pauso azkar eta eraginkorrek ematea ezinbestekoa dela». Larrialdi klimatiko egoera deklaratzeko eskatu dio udalak Eusko Jaurlaritzari.

GUTUNAK

Klima larrialdia dela eta

Anoetako EH Bildu udal taldeak bat egiten du gaurko klima aldaketaren aurka deituta dauden mobilizazioekin.

Gaur nekazaritza politika bateratuen inguruko jardunaldietan gaude, klima aldaketaren aurka ere elikadura sistema osasuntsuak eta landa eremu biziak lortzea ezinbestekoa delako.

Asteleheneko ohiko osoko bilkuran, klima aldaketaren aurka konpromiso zehatzak hartzeko mozioa aur-

keztuko dugu, iruditzen zaigulako larrialdi klimatiko baten aurrean gaudela eta zibilizazio bezala erronka bat dugula. Lehen mailako kezka bihurtu da gaia, bereziki gazteentzako, ez bakarrik larrialdia, baita gaiari ematen zaion erantzun politiko eskasa ere.

Anoetako EH Bildu udal taldea, Anoeta



«BERRIRO SENTITU NUEN BEHARRA, BARRUAN NUENA MUSIKAREN BIDEZ ASKATZEKO»

MAIDER ZABALEGI
ABESLARIA

Amasako elizan, eta udazkenari ongi etorria emateko antolatu den kontzertu akustikoan arituko da, bihar, 20:00etan, ondoan Urbil Artola eta Gorka Urrea dituela

Jon Miranda

Gazte zela hasi zen musika munduan Maider Zabalegi (Oiartzun, 1976), Alaitz Telletxearekin bikote eginda. Dozena bat urteko etenaren ostean, 2017an *Zuei* diskoa kaleratu zuen eta aurren *Bidean* izenekoarekin dator.

Maiz eskaintzen al dituzu kontzertuak formatu akustikoan?

Orain arte talde guztia aritu gara, sei kideak elkarrekin. Beste kontzertu mota batzuk eman ditugu, agertoki handiagoetan. Neguari begira, formatua aldatu dugu. Bagenuen gogoia zerbait goxoagoa eta gertuagokoa egiteko. Formatu akustikoak ematen du horretarako aukera.

Aurren argitaratu duzu *Bidean* diskoa. Bertan jasotako kantuak eskainiko dituzu biharko kontzertuan?

Bi diskoetako kantuekin osatu dugu errepertorioa, formatu akustikora gehien egokitzen direnekin. Lehen, garai batean, Alaitzekin nenbilela sortutako kantuak ere izango dira.

Ondoan Urbil Artola eta Gorka Urrea izango dituzu.

Ni Alaitzekin nenbilela, Mikel Errazkinen harremana izan genuen, eta bere bidez Urbil ezagutu genuen. Urte asko dira elkar ezagutzen dugula. Bakarkako musika ibilbideari berriro ekin nionean, beste inori baino lehenago hots egin nion berari. Niretzako babes handia izan da Urbil. Aldiz, Gorka ia ez nuen ezagutzen, nahiz eta oiartzuarra izan eta nire etxetik 60 metrora bizi. Azkeneko lanean niretzako ezinbestekoa izan da bere parte hartzea. Musikalki ezberdinak dira: Urbilek folk kutsu handiago du, soinu gardenagoak ditu eta Gorkak, berriz, tonu

gogorragoak. Nik uste dut bi soinu horiek barruan daramatzadala eta beraien gain topatu dut hori kanporatzeko modua. Luxu bat da bi lagun hauek alboan edukitzea.

Zein da bakarkako zure bi lanen arteko aldea?

Oso prozesu jarraitua izan da. Lehen diskoa bukatzen ari ginela, taldekideek esaten zidaten gelditzeko, emari izugarria nuela. Hortaz, orduko kantuak sartu ditugu bigarrenengan. *Bidean* diskoan Urbil eta Gorka izan ditut ondoan, moldaketetan-eta beraien ukitua nabari da. Lehenengo diskoa ekoizpen askokoa zen, eta bigarren lana gehiago da zuzenekoan eskaintzen duguna. Nirea sentitzen dut, hasieratik bukaerara egon bainaiz prozesuan.

Zer da zure kantuekin eskaini nahi duzuna?

Hitzetan, denok bizi ditugun gaiak aipatzen ditut: adinari dagozkionak, bizitzan denok bizi ditugun doluak, maitasuna, haur motxiladunena, errefuxiatuen gaia... Baten batek pentsa dezake kontu tristeak direla, baina kontua askotan da nola irakurtzen ditugun gauzak, zein begiradatik. Nik behin kantuetan kanporatzen ditudanean, beste modu batera ikusten ditut. **1990eko hamarkadan Alaitz Telletxearekin batera plazaz plaza ibili ondoren, isilune luzea egin duzu. Zergatik erabaki zenuen itzultzea, duela bi urte?**

Oso gazte hasi nintzen musika munduan, 14 urterekin. Iritsi zen garai bat non ez nuen zirrararik sentitzen. Ager-tokira igotzea, etxeko komunera joatearen antzekoa zen. Nekatuta bukatu nuen. 12 urte pasatu ditut musikatik erabat urrunduta. Tarte horretan, egia da, dolu prozesu batzuk pasatu nituela, azkena aitonarena. Hor berriro sentitu nuen beharra, barruan nuena musikaren bidez askatzeko. Berriz konposatzen hasi nintzen, eta goizaldean esnatu eta sortu eta sortu egiten nuen. Barruak husteko nire bidea da musika. Hasi naiz berriz, eta ezin gelditu.

Nola gonbidatuko zenituzke eskualdeko herritarrak biharko emanaldira?

Momentu oso polita pasatuko dugu. Ez dut askotan jo izan elizetan, baina izugarri gustatzen zait horrelako lekuetan aritzea, akustika oso berezia dutelako. Han ikusiko dugu elkar.



I. Xare Irekiaren finalerdiak jokatuko dituzte gaur

Partidak 19:00etan hasiko dira, Ametsa trinketea, eta irabazleek finala bihar jokatuko dute, 12:00etatik aurrera

Imanol Garcia Landa Irura

Txapel dunak erabakiko diren asteburura iritsi da I. San Migel Xare Irekia. Gaur arratsaldean finalerdiak jokatuko dituzte, eta irabazleak bihar lehiatuko dira, txapel dun bilakatzeko. Gorabeheratsua izan da torneo, bigarren jardunaldian trinketeko atzeko kristala hautsi ondoren, antolatzaileek aldatu egin behar izan baitute egutegia. Zozketa bidez osatu dituzte finalerdiak, eta 19:00etan hasiko dira partidak.

Lehenengo finalerdian Apeztegia-Funosas eta Larronde-Moncada bikoteak ariko dira elkarren aurka. Bigarrenengoan, De Paredes-Bortheiru eta Driolet-Etxeverri. Norgehiagoka baikoitzean irabazten dutenek, finala



Larronde, Moncada, Ametsa elkarteko Uzkudun, Funosas eta Apeztegia, lehen jardunaldian. ATARIA

bihar 12:00etan hasiko den jaialdian jokatuko dute, festen barruan.

Finalaren atariko nesken arteko xare partidak jokatuko dituzte. Lehen aldiz, jokatzeko pilotari guztiak neskak izango dira. Sei pilotari daude-

nez, hiru bikote egin dituzte: Naroa Gorostidi-Matxalen Mendizabal, Nora Galartza-Maider Isasa, eta Irati Fernandez-Nahia Gorriti. Hiru bikoteek elkarren aurka jokatuko dute, 10 tantotako joko bana, hain justu.

II. Xistera Campusak eskualdean ere izango du bere presentzia

Beotibar Zesta Punta Elkartea

Komunitatea

Asteburu honetan, II. Xistera Campusak egingo dute, Urnietan. Bertan elkartuko dira Euskal Herriko hainbat txokotatik iritsitako puntista gaztetxoak. Gipuzkoa, Bizkaia, Araba, Nafarroa eta Iparraldeko 80 gaztetxo elkartuko dira, zesta puntaren inguruan elkarrekin asteburu eder bat pasatzeko. Campusak, ordea, oihartzun zabala izango du Tolosaldean. Izan ere, larunbat goizean elkartu eta, bazkalostean, lau pilotalekutan banatuko dira gaztetxoak, zesta puntaren inguru-

ruko teknifikazioa jasotzeko. Hala, Tolosa (Uzturpe pilotalekua), Belauntza eta Amasa-Villabonako pilotalekutan banatuko dira, baita Andoingo pilotalekuan ere. Urnietara bueltan, Iñaki Goikoetxea Goiko pilotari ezagunaren bisita izango dute, eguna gaubeila ederrarekin amaitzeko.

Igandean, pilotari guztiak Tolosako Beotibar pilotalekua izango dute jomuga. 10:30etik aurrera, bertan elkartuko dira pilotari guztiak kiniela batzuk jokatu eta Alondegia plazan jolasak egiteko. 13:30ak aldera emango diote amaiera Campusari. Helburu garbia du Xistera Campusak: zesta

punta biziberritu nahi bada, beharrezkoa da epe ertain-luzerako proiektu bat. Campusean parte hartuko duten gaztetxoak dira zesta puntaren etorkizuna. Eurak dira proiektua bera.

Beotibar Zesta Punta Elkartea gogotsu parte hartuko du Campusean, bai elkarteko pilotariekin parte hartuz, eta baita antolakuntza lanetan ere. Horregatik, zesta puntaren inguruan interesa duen oro gonbidatu nahi dugu Beotibarrera. Munduan gehien hedatu den pilota jokamolderik azkarrena gertutik ezagutu, eta elkarteko ateak zabaltzeko nahi ditugu. Gonbita egina dago.

Aulkitik

Gogor lan egin behar dugu

Txapelketako 2. jardunaldia jokatu genuen larunbatean. Maila honetan etxetik kanpo eta Euskaditik kanpo jokatzen genuen lehena zen. Iaz, 1. Maila Nazionaleko txartela lortzearekin batera, gure mugak zabaltzea ere

lortu genuen, eta ondorioz, Nafarroara eta Errioxara ere bidaiatuko dugu aurten. Beraz, autobusera igo eta Iruñera joan ginen, Osasunaren aurka jokatzeraz.

Bagenekien ez zela partida erraza izango, «Osasuna»

maila handiko hitza baita. Hala ere, gogotsu geunden.



NAROA JAUREGI
TOLOSACF,
1. MAILA
NAZIONALE

Partida hasi zen, eta gauzak ez ziren nahi bezala joan. Nahiz eta gure helburua aurkariei aurre egitea zen, ez genuen lortu. Maila honetan egin ezin diren zenbait akats egin genituen eta, ondorioz, Osasunaren golak iritsi ziren. 4-Oko emaitzarekin amaitu zen partida.

Tajonarretik bueltan, taldeko aforia egin genuen eta ondoren parranda pixka bat ere egin genuen.

Orain gogor lan egitea tokatzen zaigu eta, ziur nago, horrela emaitzak iritsiko direla. Esaldi batek dioen bezala, «ez zaio inori gustatzen akatsak egitea, baina akatsei esker ikasten da hobeak izaten». Beraz, badakigu, ezin dugu emaitza hau txartzat hartu, izan ere, ez dauka atzera bueltarik eta hiru puntuak berreskuratzea ezinezkoa da dagoeneko. Hortaz, partida hau ikasteko erabiliko dugu eta horrela ez gara leku berean bi aldiz irauliko.

Aupa neskak eta aupá Tolosa!

TALDE NAGUSIAK

LAUBURU IBARRA LASKORAIN

Areto futbola. Bigarren B maila. Irailak 28, larunbata, 18:30ean. Ibarako Belabieta kiroldegian.

TOLOSA CF San Ignacio

Futbola. 1. Maila Nazionalea. Irailak 29, igandea, 17:00etan. Tolosako Berazubi futbol zelaian.

TOLOSA CF Sodupe

Futbola. Hirugarren Maila. Irailak 28, larunbata, 16:30ean. Tolosako Berazubi futbol zelaian.

Alcorta Forging Group TOLOSA CF ESKUBALOIA

Eskubaloia. Irailak 27, ostirala, 20:30ean. Elgoibarko Olaizaga kiroldegian.

Bote luzeko finalerdietan izango dira eskualdekoak

Erredakzioa

Bote Luzeko Euskal Herriko finalerdia jokatuko dituzte bihar. Bertan parte hartuko du, batez ere eskualdeko pilotariek osatuta dagoen Gipuzkoa 2 taldeak. Bere aurkaria Iparralde 2 izango da eta Senperen (Lapurdi) jokatuko dute partida, 11:00etan hasita. Gipuzkoa 2 taldeak bigarren bukatu du ligaxka bere multzoan, eta beste multzoko lehen postuan amaitu duen Iparralde 2 izango da, beraz, aurkari, finalera iristeko bidean.

Beste finalerdia ordu berean izango da, eta Berrizen (Bizkaia) jokatuko dute. Gipuzkoa 1 taldea Bizkaiaren kontra ariko da partida horretan. Finala urriaren 19an jokatuko dute, Berrizen.

LARUNBATA IRAILAK 28

ALEGIA

ELORRI FUTBOL ZELAIA

10:00. Futbola. Infantil neskak.

Aralar Intxurre-Ordizia.

11:45. Futbola. Infantil mutilak.

Aralar Intxurre-Danena.

16:00. Futbola. Erregional 1. maila.

Intxurre-Axular.

AMASA-VILLABONA

ARRATZAIN FUTBOL ZELAIA

11:00. Futbola. Ohorezko kadete maila.

Billabona-Antiguoko.

15:30. Futbola. Jubenil 1. maila.

Billabona-Urnieta.

17:45. Futbola. Erregional preferente maila.

Billabona-Lagun Onak.

IBARRA

BELABIETA KIROLDEGIA

16:00. Areto futbola. Ohorezko jubenil maila. Lauburu Ibarra-Racing de Mieres.

TOLOSA

USABALGO FUTBOL ZELAIA

12:30. Futbola. Kadeteen Euskal Liga. Tolosa CF-Real Sociedad.

15:30. Futbola. Ohorezko erregionala. Tolosa CF-Zumaiaiko.

18:00. Futbola. Ohorezko jubenil maila. Tolosa CF-Zumaiaiko.

**BILLABONA
FUTBOL
KIROL ELKARTEA**

ARRATZAINGO FUTBOL ZELAIA

Larunbata, 28 • 11:00
Ohorezko kadete maila
BILLABONA FKE - ANTIGUOKO K.E.

Larunbata, 28 • 15:30
Jubenil 1. maila
BILLABONA FKE - URNIETA K.E.

Larunbata, 28 • 17:45
Preferente maila
BILLABONA FKE - LAGUN ONAK C.D.



Lortzen: 45 urtetik gorako langabetuentzako laneratze programa

Ohiko lan orientazioarekin batera, ezinbestekoa da taldekako saioak egitea, motibazioa pizteko.

2019. urtean, Lortzen proiektuarekin, enpleguaren aktibazioa sustatzea lortu dugu, 45 urtetik gorako langabetuekin. Programako lehenengo taldean 20 pertsonak parte hartu dute, eta horien %60 lanean hasi dira, beraz, aurretiaz jarri genituen helburuak lortu ditugu.

Bestalde, laneratzeaz gain, luzaroan langabezian dauden pertsonak laneratzea lortu dugu, urtetan zituzten dinamika hautsiz.

Tolosaldea Garatzeneko enplegu zerbitzuak 2003az geroztik orientazio indi-

biduala eta taldeakakoa eskaintzen dio, lan egoera hobetu nahi duenari. Zerbitzu hori enplegu sailetik bideratzen dugu, eta horretan badugu eskarmen-tua.

Alde batetik, Lanbideren zentro kolaboratzaile gara, orientazio eta informazioan, lan eskaintzak kudeatzen, eta enplegu zentroa ere badugu, erabiltzaileek teknologia berrien bitartez lana aurki dezaten. Bestalde, kolokazio eta birkolokazio agentzia gara.

Taldekako orientazioa ezinbestekoa da, laneratzeko landu beharreko gaiak jorratzeko eta, batez ere, langabezian egotean sortzen diren beldur, lotsa, erruduntasun, ezintasun... sentimenduak kudeatzeko. Izan ere, sentimendu horiek pertsona askori sortzen zaizkiola

ikustean, langabetua erlaxatzen hasten da, eta konfiantza hartzen du bere prozesuan. Bertan sortzen den kasuistika ohikoa dela ikustean, aurrera begira jarritzea errazagoa da, lana bilatzeko.

Taldekako orientazioa prestakuntza teknikoarekin osatzen dugu, laneratzea asko erraztuz.

Bigarren talde bat egiteko asmoa dugu urriaren amaieran, eta 18 pertsonarentzako lekua izango da.

Ondorengo gaiak landuko ditugu:

- Prestakuntza teknikoak: bezeroaren arreta (50 ordu), eta eskaerak prestatzea (40 ordu).
- Taldekako eta banakako orientazioa. Izena emateko: lan@tolosaldea.eus eta 943 65 45 01 telefonoa.



Trapu zaharrak

Ikasturteari hasiera emateko garaia iritsi da, eta Zientziaren Talaiari ere garaia iritsi zaio, zientzia gaiak dibulgatzen jarraitzeko.

Ikasturte honetan ere hamaika gairi eusteko asmoa dut, bai nik buruan ditudanak, baita zuek bidalitako proposamen eta galderei erantzunez sor daitezkeen artikulu aberasgarriak ere. Zientziaren eta eguneroko bizitzaren artean loturak eta zubiak eraikitzea atsegin dudala jakingo duzu jada, irakurle, eta jakin ere badakizu, sukaldean dagoen zientzia eta kimika askotan izan dela nire inspirazio iturri.

Oraingoan, sukaldeko trapuak eta komuneko toallak izango ditut aztergai. Hobeto esanda, haietan dagoen zikinkeria. Erantzun beharreko galdera hauxe da: zenbatero garbitzen dituzu sukaldeko trapua, baieta horia, edo komuneko toallak? Edo, hobeto esanda, zenbatero garbitu beharko zenituzke?

Bada, hainbat ikerketak erakutsi dutenez, sukaldeko trapu, zapi eta antzekoetan

bakterio heterotrofiko eta enteriko pila aurki daiteke. Zentzua du. Bakterioak gozo-gozo bizi dira, sukaldeko trapuen tolesturetan dagoen hezetasunean murgilduta. Hain zuzen ere, etxeko lekurik kutsatuenen artean daude trapu eta toallak. 1995ean egindako ikerketa batek jakinarazi zuenez, hogeita hamar bakterio espezie baino gehiago, maiztasun handiz aurkitu zituzten sukaldeetan. Gutxi-gorabehera, sukaldeko trapu bat bihurritzean ateratzen den likidoaren mililitro bakoitzean, milioi bat unitate kolonia-eratzailerik frogatu zen. Horien %14 inguru salmonelari dagozkio, gainera.



JOSU LOPEZ-GAZPIO
KIMIKAN
DOKTOREA ETA
ZIENTZIA
DIBULGATZAILEA

Artikulu honen atzean dauden argitalpenak, eta bestelako informazio zehatzagoa, EHUko Kultura Zientifikoko Katedrak kudeatzen duen Zientzia Kaiera blogean aurkituko duzu, ene irakurle. Zalantzarik ez izan, nire bigarren etxe horretara jotzeko, argibide gehiagoren bila. Laburtuz, hemen idatz dezakedana da, sukaldeko

E. coli gehiago hartzeko arriskua dago, bi egun baino gehiagoz esekita egon den toalla batekin aurpegia garbitzen badugu, aurpegia komun-zuloan sartuta baino

Sukaldeko trapu bat bihurritzean ateratzen den likidoaren mililitro bakoitzean, milioi bat unitate kolonia-eratzailerik frogatu zen; horien %14 salmonelari dagozkio

trapuen %30ean bakterio bidezko kutsadura maila altuak aurkitu direla. Komuneko toallen kasuan ere antzeko zerbait gertatzen da; izan ere, komunak ingurune heze eta ilunak dira: bakterioak hazteko primerako lekuak.

Idéia bat emate aldean, Charles Gerba adituaren kalkuluen arabera, komuneko toallen %90 bakterio koliformekin kutsatuta dago. Jakina, trapuak, toallak eta zapiak garbitzeko dugun maiztasuna lotuta dago haietan aurkitzen den bakterio kantitatearekin. Hala ere, jakin behar da, ohiko garbiketara batekin, kasu askotan, ez dela lortzen bakterio guztiak akabatzea. Horren ondorioz, Gerbak argi dio: E. coli gehiago hartzeko arriskua dago, bi egun baino gehiagoz esekita egon den toalla batekin aurpegia garbitzen badugu, aurpegia komun-zuloan sartuta baino.

Ikerketek erakutsi dutenez, toallak bi egunez behin garbitzea gomendatzen da eta, sukaldeko trapuen kasuan, maiztasun handiz garbitzea. Azken horien kasuan, garbiketarako metodorik eraginkorrena denbora labur batez lixibatan murgiltzea da. Hala ere, beti ez da lortuko guztizko garbiketa, baina, ikusi denez, modu horretan lortzen da bakterio kopurua ahalik eta gehien murriztea. Edozein kasutan, ikerketa horiek erakutsi dute zientziak baduela zeresana eguneroko bizitzan. Une honetan ez al duzu utziko eskuartearen daukazu guztia, komuneko toallak garbigailuan sartzeko?



Malumbres dendako bost anai-arrebak, dendan. JOSEBA URRETAIZKAIA

DENDA HISTORIKO BATEN ITXIERA

Tradizio luzeko beste denda bat itxi dute, uda honetan, Tolosan: Malumbres jantzi denda. Amaitu egin da, familia bereko hiru belaunaldik bete duten ehun urte baino gehiagoko historia. Ez da lehen kasua, eta ez da azkena izango.



Joxemi Saizar

Uztailaren 30ean itxi zituen ateak, betiko, Kореo kaleko Malumbres jantzi dendak. Ignacio Malumbres izan da azken arduraduna, Ana Gutierrez aspaldiko laguntzailearekin batera eta, horiei erretiroa hartzeko garaia iritsi zaienean, 1915ean hasitako ibilbideari amaiera eman diote. Penaz. Isidoro Malumbres eta Maria Olano izan ziren dendak ireki zutenak. Beren seme-alabek, Isidorok eta Pilarrek, jarraitu zuten haien lana, Pepita Jauregi Isidororen emaztearen laguntzarekin. Eta, hirugarren belaundian, bost bilobak aritu dira, gehiago edo gutxiago, dendak: Arantxa, Gema, Javier, Asun eta Ignacio. «Bakoitzak bina seme-alaba ditugu, eta hurrengo belaundia beste lanbidetan ari da lanean, zorionez. Aspalditik geneien familian ez zegoela aurrera jarraitzeko aukerarik, eta ni erretiratutakoan itxiko zela zikloa», azaldu du Ignacio Malumbresek.

Ez dira saiatu ere egin familatik kanpora erreleboz bilatzen, Gabirondo zapata-dendak egin duen bezala.

**Gizonentzat neurriraz
egindako trajeak egiten
zituzten gehienbat,
horiek asko erabiltzen
zituzten garaian**

«Azken urteotan jaitsiera handia izan da merkataritzan, orokorrean, eta gure kasuan ere bai. Iraun egin dugu, adina iritsi bitarte. Horrelako egoeran ezin dugu inor animatu negozioa hartzera. Sentimentalki pena handia da, baina bizitzaren zikloak izaten dira», aitortzen du dendariak. 1983an bost anaia-arreben artean sortu zuten sozietateari baja eman, eta lokalarentzat bete irtenbide bat bilatzea gelditzen zaie orain. «Beheko solairuarengatik interesa azaldu du norbaitek, baina etxea unitate bakarra da gaur egun, eraikin familiarra, eta soluzio orokorra eman behar zaio, oraingoz ezin da zatika saldu edo alokatu. Gaur egun, inor ez da bizi gaineko pisuetan. Azkenaldian bulego eta biltegi gisa erabili ditugu bi pisuak. XVIII. mendeko etxea da, eta babestua dago. Zaila izango da», erantsi du.

Historia luzea

Malumbres dendaren historia Nafarroan hasten da, Correllan. XIX. mende hasieran Erriberako mahastietan izan zen izurrite baten ondorioz, bertako jende asko kanpora lan bila atera behar izan zuen. Haien artean, Isidoro Malumbresek. Ameriketara, Kubara joateko as-

motan atera zen Corellatik, baina, harako bidean Tolosatik pasatu, senitarteko batzuei bisita egin, eta herriaren bizitasuna ikusita, bertan proba egitea erabaki zuen. Hainbat lanbidetan aritu zen hasieran. Koro eta Letxuga kaleen artean zegoen Ambrosi-enea dendan lan egiten zuen, eta Maria Olano zaldibitarra ezagutu eta berarekin ezkondu zen. Fermin Alegria dendaren jabea erretiratu, eta eskualdatzea



eskaini zien ezkonberriei. Biek josten zekiten: emazteak jaioberrien arropa egiten zuen, eta senarrak ikasi egin zuen josten, eta borondate handiz hartu zuten erronka. 1915ean zabaldu zen Malumbres denda, arropaz gain gauza gehiago ere salduz hasieran. Gero, gizonezkoen arropa josten eta saltzen aritu ziren gehienbat.

Maria Olano gazte hil zen, eta bere alaba Pilarrek 14 urterekin hasi behar izan zuen dendan lanean. Eta, geroago, Isidoro semea ere bai, jostun ikasketak egin ondoren. «Hauei, gerra ondoren, ia hutsetik hastea egokitu zitzairen, jenerorik gabe gelditu zirelako», azaldu du Ignacio Malumbresek. 1944an, Isidoro Pepita Jauregi tolosarrarekin ezkondu zen, eta hura ere lanean jarri zen dendan. Bere haurtzaroko hamarkadak lan handiko gariak bezala gogoratzen ditu azken arduradunak: «Oso langileak ziren, hiruren artean atera zuten negozioa au-

rrera. Goizetik gauera egiten zuten lan, larunbat eguerdian itxi gabe, eta igandeetan ere beti izaten zen egiteko zerbait. Izebak erakusleihoa prestatzen zuen, adibidez».

Bigarren belaunaldiko senar-emazteek bost seme-alaba izan zituzten guztira eta, dendaren gainean bizi zirenez, txikitatik dendan bueltaka eta zerbaitetan laguntzen hasi ziren denak. Amak eta Arantxa alaba zaharrena dendaren parean emakumeentzako jantzi denda bat ireki zuten, 1963an. Beste bi alabak ere, Gema eta Asun, bertan aritu ziren geroago. Bi semeak aitarekin aritu ziren, gizonezkoen arropa dendan: Javier, 1970etik aurrera, Bartzelonan jostun ikasketak eginda, eta Ignacio ere bai, soldaduska 1978an amaitu zuenetik. 1988an berrikuntza handia egin zuten, etxea botaz. Bi urtera berriro ireki arte, pareko lokalean aritu ziren lanean, ema-



kumeen arropa dendan. 2009an bi alaba zaharrenak erretiratu egin ziren eta emakumeen denda itxi zuten, hango jeneroa gizonezkoen dendara pasatuz.

Jostun lana

Hiru jostun izan dira Malumbresen historian: Isidoro aitona, Isidoro aita eta Javier semea. Eta, dendaratik kanpo, beste laguntzaile asko izan zituzten urte askotan zehar. Beraiek erabilitako guraizeak, erregela, klarion zorrozkaillua eta horrelako tresnak ondo gordeta izan dituzte, azken urte hauetan joste lanetan aritu ez badira ere. Gizonentzat neurrira egindako trajeak egiten zituzten gehienbat, horiek asko

Corellatik Ameriketara joateko asmotan atera zen batek sortu zuen Malumbres arropa denda

erabiltzen ziren garaietan. Etxera eraman aurretik, neurketa eta proba asko egin behar izaten ziren dendan. Ordu askotako lana izaten zen. Galtza batzuk josteko, adibidez, zazpi ordu behar omen ziren. Eta txaketa egiteko gehiago, noski. Azken josteta egin aurretik, bi proba egiten zituzten. Lanpostu askotan egunero erabiltzen zuten trajea. Eta jai eta egun berezietarako beste trajea izaten zuten. Ostegun Santuan eta San Joan egunean arropa estreinatzeke ohitura handia zegoen, garai hartan, Tolosan.

Azken hamarkadetan janzkera asko aldatu da, trajeen erabilera gero eta gehiago murriztuz, eta horrek eragin



zuzena izan du Malumbres bezalako jantzi dendetan. Badira urte batzuk neurrirako joskintza utzi zutela. «Ondo janztea ez dago modan. Lehen, asteburuan doto-re janzten zen jendea. Orain edozein modutan ateratzen da kalera. Eta, gaur egun, bulego eta banketxeetan ez da ia trajetik erabiltzen, garai batean bezala. Gazteria beste era batera ibiltzen da jantzita. Gure bezeroa heldua zen, eta denboraren poderioz desagertzen joan da, natural-ki», dio Malumbresek.

Sektore jakin horren gainbeherarekin batera, krisialdia gertatu da. «1980koa eta 1992koa ezagutu genituen, baina azken honi amaiera iritsi baino lehen, beste behe-rakada bat ari da iragartzen jada. Autobia egin zutenean, Nafarroako bezero asko galdu zituzten Tolosako dendek. Merkataritza-gune handien konpetentzia sortu zitzaigun eta, gaur egun, internetarena. Gure bezero motan ez du eraginik, baina gazterian bai. Erabat aldatu dira kontsumo ohiturak», azaldu du. Belaunaldiz belaunaldi mantendutako bezero fidela urte gutxitan desagertzen joan dela ikusi dute. Aitona-amonengandik ja-

sotakoa ondorengoei utzi ezin izanaren pena gelditzen zaie familian Malumbrestarrei, beste denda historiko askori gertatzen ari zaion bezala.

Errepikatzen den historia

2017an 100 urte jendaurrean. *Comercio centenario de Tolosa* liburua argitaratu zenean, familia bakarrek mende batez mantendutako 24 denda bildu zituen liburuak. Haien historia jasotzea eta ezagutaraztea izan zen helburua. Horietako bi denda itxi dituzte jada, eta orain hirugarrenaren itxiera iritsi da. Beste hiruzpalau kasutan egoera beretsuan daude, eta urte gutxi gelditzen zaizkie ateak iteko. Tartean, negozioa familiaz kanpoko norbaiten esku utzi duen Gabirondo zapata dendaren kasua dago.

Zorionez, kasu gehienetan, familiaren barruan belaunaldi berriek erreleboa hartu diete aurrekoei, eta denda horien historia urte luzez mantentzeko itxaropenarekin ari dira lanean, krisialdiek eta lehiakortasun gero eta gorrangoak irauten uzten dien bitartean.

XAREAREN SAREA EHUNTZEN

Aurten bete dira ehun urte Iruran xarean jokatzeko hasi zirenetik. Gorabehera asko igaro ditu ordutik, baina irautea lortu du, besteak beste, Mikel Uzkudun pilotari ohiaren, Julen Apeztegia xare jokalariairen eta Pello Arsuaga xaregilearen lanari esker. Horrela segi dezan, eskola ere martxan dute

19



Irurako trinketeen jokatzeko dituzte txapelketako partidak. IRATISAIZAR



Mikel Uzkudun xare jokalaria izandakoa da. ATARIA

Irati Urdalleta Lete

Ez dira egunero 100 urte betetzen, eta urteurren hori ospatzen ari da xarea Iruran. Joxe Jauregi apaizak 1919an ekarri zuen herrira pilota modalitate hori eta, hainbat gorabeherari aurre eginez, bizirik jarraitzen du oraindik.

Mikel Uzkudun xare jokalaria ohiak azaldu duenez, Joxe Jauregi oso gustuko zuen xarea eta, Irurara iritsi zenean, bertako haurrei erakusten hasi zen: «Urte haietan, arkupe-etan jokatzen zuten herriko gazteek». Baina hogeitaz urteren buruan, 1936ko gerra hasi zen, eta gainbeheran sartu zen xarea. «Ez dakigu apaizak hemen jarraitu zuen ere, baina badakigu 1950era bitarte galduta egon zela xarea», dio Uzkudunek. Orduan, xarea berriro ikusaraziko zuen gertaera izan zen: Donostian Munduko Euskal Pilota Txapelketa jokatu zuten. Nazioarteko federazioak bazekien, Iruran, garai batean, xarez jokatzen zela, eta lau gazte prestatu zituzten Munduko Txapelketa horretan parte hartzeko.

Behin txapelketa amaituta, berriro gainbeheran sartu zen xarea, baina lortu zuten berreskuratzea. «Kasualitateak horrela izaten dira, eta 1970ean berriro ospatu zen Munduko Txapelketa, Donostian». Argentinakoak, Uruguaiakoak eta iparraldekoak bazeuden, baina hegoaldekoek ere jokatzea nahi zuten. Orduan, berriro hurbildu ziren Irurara, eta irurarrek txapelketa hura jokatu ez bazuten ere, xare eskola bat jartzeko lehen urratsak ematen hasi ziren, 1980tik 2000rako loraldiaz gozatuz. «Ni neu garai hartakoa naiz, eta 1970 inguruan hasi nintzen xarez jokatzen».

Xarean jokatzeak txapelketak antolatzea ere ezinbestekoa da, eta lan horretan dihardu Uzkudunek. Azken urteetan galduta egon den arren, aurtan, Irurako festetan txapelketa bat antolatzea erabaki dute. «Iparraldeko pilotariekin harremanetan jarri beharra daukagu, horrelako torneoak eta txapelketak antolatzeak», azaldu du Uzkudunek. Hain zuzen, Irurako bi pilotari arituko dira, eta iparraldeko sei.

Bertan jokatuko duen pilotarietako bat da Julen Apezte-



Julen Apeztegiak goi mailan jokatzeko, Joxi Lopetegirekin batera. ATARIA

gia. Gustura dago herriko txapelketarekin: «Aspalditik ez zen ikusi Iruran, maila honetako partidarik, eta jende asko ari da gerturatzen. Animoak jasotzen dituzu eta ikaragarri nabaritzen da», dio. Berarekin batera arituko da Joxi Lopetegi irurarra ere. «Urte asko daramatza xarez jokatzeko, munduko txapelketa ere izan da, eta azken hogeitaz iparraldeko pilotari batekin jokatzeko txapelketak», azaldu du Uzkudunek.

Iruran, festen baitako txapelketa horretan parte hartzen duten bi pilotariak bakarrik dabil-tza goi mailan. Euskal Herrian, berriz, ez dago xarearen inguruan mugimendu handiegirik. Batez ere, Ipar Euskal Herrian du ospea, baina, hegoaldean, Irurako bi pilotariez gain, Nafarroako beste bi edo hiru baino ez daude. Pilotari falta horrek arazoak ere sortzen ditu. «Iruran, nire mailan, ni eta beste bat bakarrik ari gara jokatzeko, entrenatzeko zailtasunak ditugu», dio Apeztegiak. Izan ere,

«Iruran, nire mailan, ni eta beste bat bakarrik ari gara jokatzeko. Horregatik, entrenatzeko zailtasunak ditugu»

xarean entrenamendu on bat egiteko, lau lagun elkartu beharko lirake. «Hala ere, moldatzen gara», dio. Entrenamenduez gain, partidak ere jokatzeko dituzte asteburuetan, bat iparraldean eta beste hegoaldean, txandaka. «Bidaletan gastua egiten dugu, baina, gustatzen zaigunez, hor jarraitzen dugu», dio Apeztegiak. Txapelketei dagokienez, iparraldekoa dago, urte osoan egiten dena, eta Espainiakoa eta Frantziakoa ere badaude, baina partida gehienak iparraldean jokatzeko dira. «Han trinkete asko daude, eta xarean ez ezik joko grabian ere aritzen dira», azaldu du Apeztegiak.

Egoera ikusita, gaur egun iparraldeko jokalariek beharrezkoak dira, xareak iraun dezan. «Iruran xarez jokatzeko nahi bada, derrigor iparraldeko pilotariekin eta klubekin harreman berezia eduki behar dugu, hegoaldean ez dagoelako antolakuntzarik», dio Uzkudunek. Hegoaldean zer-



60-70 haur inguru aritzen dira xare eskolan. IRATI SAIZAR

bait egin nahiko balitz, berriz, uste du federazioek hartu beharko luketela ardura. Apeztegiaren iritziz ere, xarea sustatu beharko litzateke: «Xarea erakutsiz gero, agian, jendeari gustatu egingo litzaioke».

Euskal Herritik kanpo, egoera ez da askoz ere hobea, ez delako oso kirol ezaguna. Hala ere, munduko kopa jokatu-ko dute urrian: «Kuba, Frantzia, Espainia, Amerikar Estatu Batuak, Portugal, Uruguai eta Argentinak parte hartzen dugu», dio Apeztegiak.

Xarejolarariak sortzen

Irura xarearentzat oasi moduko bat izan arren, jokalariek falta dira. «Irura eta xarea binomioa oso lotua izan da betidanik. Jendeak ez du Irura ezagutzen, xarearengatik ez bada», baieztatu du Uzkudunek. Berak azaldu du, euskal pilotak hainbeste modalitate edukitzeak alde onak zein txarrak dituela: «Alde batetik, aberastasun izugarria da, baina, beste aldetik, modalitate batzuk desagertzeko zorian egotea dakar».

Hori gertatu ez dadin sortu dute xare eskola, eta 60-70 neska eta mutil dabilta bertan. «Azken urteetan, konturatu ginen harrobia bazegoela, baina, neska-mutilek hamalau urte betetzen zizutenean, jokatzeari uzten ziotela», dio Uzkudunek. Horri erremedioa jarri zioten iaz. Hain zuzen, teknifikazio taldeak sortu zituzten, 12-13 urtekoentzat eta 13-14koentzat. Talde horiek iparraldeko txapelketetan parte hartzen dute, eta aurrera jarraitzeko asmoa daukate. «Hori izan daiteke bidea, xareak Iruran garai batean izan zuen maila eta ospea berreskuratzeko. Eskolarekin asmoa eta ilusioa daukagu, xarea berpizteko», azaldu du Uzkudunek. Apeztegia ere baikor ageri da: «Oraintxe bertan, Iruran indar handia dauka xareak. Gu oso gutxi ginen, baina orain ume asko apuntatu dira».

Apeztegiak txikitatik jokatu izan du xarean: «Xarea Iruran betidanik egon da eta, beste herri batzuetan beste kirol batzuk sustatzen diren bezala, Iruran xarea bultzatzen da. Lagunak apuntatu ginen, eta horrela hasi nintzen». Beste pilota modalitate batzuk ezagunagoak izan arren, berak xarearen aldeko apustua egin zuen: «Xarea herrian daukaun kirola da, eta betidanik jokatu izan dugu».

Lehenengoz, emakumeek ere bai

Aurtengo berrikuntza nagusienetakoa izango da, emakumeen arteko xare partida. «Neskak ere xarez jokatzen ikasten ari dira, eta aukera bat eman nahi izan diegu», dio Uzkudunek. Pilotako gainontzeko modalitateetan emakumeek hartu duten presentzia xarean ere izan dezaten nahi dute: «Xarean jokatzen duten neskak badaudela erakutsi nahi dugu eta, bide batez, neska gehiago animatu nahi ditugu xarean jokatzer».

Emakumeen artean ere xarea bultzatuz, beraientzako txapelketak ere antolatu nahi dituzte.

«Xarean jokatzen duten neskak badaudela erakutsi nahi dugu eta, bide batez, neska gehiago animatu nahi ditugu jokatzer»

Txapelketan aldaketak

Urte batzuk egin gabe egon ondoren, aurtan berriro txapelketa bat antolatzea erabaki dute Iruran. Hala ere, espero ez zituzten hainbat aldaketa egin behar izan dituzte. Izan ere, erreboteko kristalaren zati bat hautsi egin da, pilotakada baten ondorioz. Horrenbestez, irailaren 22an jokatzeak ziren finalak 28an jokatuko dira, eta egun horretan jokatzeakoa zen finala egun bat atzeratuko dute. Apeztegia itxaropentsu mintzatu da, finalari begira: «Ni aurrelaria naiz, eta tokatu zaidan atzelaria oso ona da. Esperantza txiki bat badaukat, behintzat finalera iristeko, eta ahal bada irabazteko. Gogoz nago». Irabazten duenak irabazi, zalantzarik ez dago egindako lanak xarea bultzatzeko balioko duela.



«XAREA MANTENTZEKO EGITEN DITUT, HEMEN BESTE INORK EZ BAITITU EGITEN»

PELLO ARSUAGA
XAREGILEA

Aitari erreleboa hartuta, xareak egiten dihardu Pello Arsuaga irurarrak eta, pilotariak jokatzen duten bitartean, horretan jarraitzeko asmoa dauka.

Irati Urdalleta Lete

Batzuek xarean joka dezaten, beste norbaitek egin behar. Horren ardura du Peio Arsuagak (Irura, 1974). Aitak utzi zuenetik dihardu horretan, eta, egun xaregile gutxi badaude ere, esperantzarekin hitz egiten du lanbidez.

Noiz eta nola hasi zinen xareak egiten?

Hogeitaz bat nituenean edo hasi nintzen, aitarekin ikasten. Gero, pixka batean utzi egin nuen, baina aitak minbizia bat pasatu zuen, eta besoan indar gutxi geratu zitzaionez, nik segitzea erabaki nuen.

Nola egiten dituzu?

Aurrena, mendira joan behar da eta egurra hartu. Lehen, gehienbat, gaz-

taina eta hurritza erabiltzen ziren, baina, orain gaztaina gutxi daudenez eta gaitza daukatenez, hurritza erabiltzen dugu. Bere garaian moztu behar da, ilargiaren arabera, eta forma eman behar zaio eskuz. Lehortzen urtebete eduki ondoren, zuritu, lixatu eta bernizatu egin behar da. Azkenik, sokak jartzen ditugu.

Orain, zuk hartu diozu erreleboa aitari. Nola jaso zuen albistea?

Bere lanak segida zeukala ikusi zuen, eta izugarrizko ilusioa egin zion. Izan ere, pasioz bizi du xaregintza. Niri ere gustatzen zait, eta pena ematen zidan galtzeak. Txikitatik ikusi izan dut aita xareak egiten, egurra moztzen...

Xaregintzatik bizi al daiteke?

Ez. Xare bat egiten behar duzun den-

borari ez dakizu zein prezio jarri ere. Izan ere, ordu asko behar dira, baina, garesti jartzen badituzu, inork ez du jokatuko. Xareak egiteak kostua du, baina dirua ez galtzera egiten dut lan. Xarea mantentzeagatik egiten ditut, hemen beste inork ez dituelako egiten.

Zein ezaugarri eduki behar ditu xare on batek?

Bere forma eta neurriak dauzka, eta ez da berdina haurrentzat edo helduentzat egitea. Sokaren kotoiak ere nahiko gozoa izan behar du, elastikotasun pixka batekin. Guk erabiltzen ditugun sokak aurkitzea ere gero eta zailagoa da. Izan ere, gaur egun, material guztia sintetikoa edo plastikozkoa da.

Euskal Herrian ez zarete xaregile asko izango.

Nik dakidala ez. Lau inguru izango gara, baina, agian, besteren bat ere egongo da. Iruñean beste bat zegoen, baina hil egin zen. Hegoaldean beste inor ez dago; iparraldean hiru daude, eta batek esan zidan aurten utzi egin behar zuela.

Batez ere, nori saltzen dizkiozu?

Gehienbat Irurako xare eskolarako egiten ditut, eta norbanako batzuek ere eskatzen dizkidate, baina ez dut urtero kopuru finko bat egiten. Aurten, adibidez, pilota eskolarako asko eskatu dizkidate, izena ume askok eman dutelako. Xareak egiteaz gain, konpondu ere egiten ditut.

Xaregile izanda, inoiz ez al duzu gogorik eduki xarean jokatzeke?

Txikitan jolasten nuen, baina erori eta eskumuturra hautsi nuen. Xarean gehiena eskumuturrarekin egiten da, beraz, utzi egin behar izan nuen.

Xaregintzaren etorkizuna nolakoa izango dela iruditzen zaizu?

Xarean jokatzen jarraituz gero, norbait izango da egingo dituen. Nik ez daukat inolako arazorik xareak egiten ikasi nahi duenari irakasteko. Afizio batengatik hartzen duzun konpromisoa da xaregintza, eta xarea mantentzeagatik egiten ditut.

Eta zuk jarraitzeko asmoa al daukazu?

Bai, osasuna eta denbora daukadan bitartean jarraituko dut. Gustatuko litzaidake herriarrei ikastaro bat eskaintzea ere, beraiek ere xareak egiten edo konpontzen ikasteko. Horrela, agian, norbaiti sartuko litzaiokie go-go, bera ere egiten hasteko.

Ikuskera berria

Gure etxean ere, erori gara. *Streaming* bidezko telebistaren harpidetza egin dugu, azkenean. Urte batzuk dauzkagunok, eta arrakala digitala nola edo hala pasatzea lortu dugunean, ez genuen geratu nahi orain ikus-entzunezkoek daramaten norabidean sortu den beste zanga antzeko hori pasatu gabe. Orain edo inoiz ez! Bizpahiru gazte inguruan dituzula sortutako edozein hitz-aspertutan, ezinbestean aterako da, halako eta halako telesailaren edo filmaren inguruko konturen bat; eta hortik aparte ez geratzearren.

Lekutan geratu dira, guk ezagutu genuen zuri-beltzeko telebista baka-

rraren telenobelak, lehiaketak eta pelikulak. Ez zenuen eskolan edo lantegian galdetuko, halakoa ikusi zuten. Ikustekotan, hura eta ez besterik. Ez zegoen eta. Gogoan dut, futbola bate-re gustatzen ez eta, partida biharamunean, lantegian beste konturik izaten ez zelako, xehetasunak emanez kronika laburra egiteko eskatzen ziguna: golegileak, minutuak, kanporatuak, eta abar. Gosaltzerakoan apunteak irakurri, eta ondo enteratuta joaten zen goizean goiz lanera. Zer komentatua izateko. Arrakalan ez erortzeko.

Garaiotan, berriz, ez duzu faltako hau ikusteko eta hura ez galtzeko gomendiorik. Eta orain arte faltan sentitu ez dituzun terrenean sartzen zara. Eta, konturatzerako, kateatuta. Engantxatuta esaten diote gazteenek.

Eta hori, guk beste garai batzuk ere ezagutu genituenik. Gurean, pertsona beltzik inguruan izatea arraroa zen urteetan, telebistaren bidez ohitu ginen, azal ondo beltzekoak ere euskaraz egiten ikustera. Horrek gure buruetan euskarari beste mugak zabaltzeko balio izan zigun. Eta hori euskarazko or-

duko telebista bakarrari zor diogu, bere akats eta gabezia guztiekin. Orduko bakarraren ondoan, badira euskarazko beste eskaintza batzuk, baina munduko kate eta mega guztien itsasoa infinituan, ez itotzeko sekulako aha-leginean.



XABIER TELLERIA
EUSKALTZALEA

Oraingo ikus-entzunezko molde berriokin, bistan da irabazteko gutxi duela euskarazko kontsumo ez hain ugariak. Euskarazko eskaintza hori eskura izatera ohitu gara. Lortzea zenbat kostatu zenaz, eta daukagun apurra galtzeko dagoen arriskuaz ohartu gabe.

Baina hau ere ez da bertirako izango. Etorriko dira telebista eta, akaso, zinema ikusteko modu

berriak. Eta, guk bezala, hemendik urte batzuetara oraingo gazteek kontatuko dute aspaldian zer ezagutu zuten, eta nola joan ziren egokitzen, eta agian kezka bat agertuko dute etorriko zaienaren inguruan. Eta batzuk, seguru, euskarak mundu berri horretan irauteko izango dituen zailtasunez.

Orduan ere, zulo batetik ateratzeko inertziaz handiago batean erortzeko arriskua ez da urruti izango.

Oraingo ikus-entzunezko molde berriokin, bistan da irabazteko gutxi duela euskarazko kontsumo ez hain ugariak. Euskarazko eskaintza hori eskura izatera ohitu gara. Lortzea zenbat kostatu zenaz, eta daukagun apurra galtzeko dagoen arriskuaz ohartu gabe.

Zuzendu miopia ebakuntzarik gabe



Tolosako Multiópticas-en miopiarentzako konponbidea daukate, egunez betaurrekoak edo lentillarik erabiltzeko beharrik gabe eta ebakuntza gelara jo gabe. Orotokeratologia edo Orto-k teknika da.

Nola funtzionatzen du?

Orto-k lentilla bereziak lo egin bitartean soilik erabiltzen dira. Orduan, kornea lentilletara egokitzen da, miopia zuzendu arte. Esnatutakoan, lentillak kendu behar dira eta egunez ikusmen onaz gozatzeko aukera ematen dute.



ZEIN ABANTAILA ESKAINTZEN DITU?



Ikusmen ona, egun guztian.



Erosotasuna gauetz.



Haur eta gazteentzat.



Kirurgiarik gabe.



Kirola egiteko egokiak.



Bestelako lentillen ordezkioak.



Bestelako lentillek eragiten duten lehortasunaren ordezkioa.



Itzulgarria

Nork erabili dezake Orto-k?

- Bost dioptriara arteko miopia dutenek eta 1,5 dioptria baino gutxiagoko astigmatismoa daukatenek.
- Miopia garatzen ari diren haurrentzat eta gazteentzat.
- Oposaketak betaurrekorik edo lentillarik gabe nahiz ebaluntzarik gabe egin nahi dituen edonorentzat (suhiltzaileak, poliziak...).
- Miopiarentzako laser kirurgia egin ezin dutenentzat edo nahi ez dutenentzat.

Orto-k zuretzat egokia den jakin nahiko zenuke?

Deitu **943 69 84 70** telefonora eta eskatu hitzordua Tolosako Multiópticasen. Inolako konpromisorik gabe informatuko zaituzte.

Agenda

OSTIRALA IRAILAK 27

ALEGIA

20:00. *Gabon analogikoetan ateratako argazkiak ikusteko hitzordua, Alegiako zineman.*

AMASA-VILLABONA

18:30. Dokumentala Gurea aretoan: *Antes que sea tarde*. Leonardo Di Caprio aktoreak eta Martin Scorsese ekoizleak National Geographic katearentzat ekoiztutako lana. Sarrera doakoa izango da.
21:30. Herriko argiteria publikoa 10 minutuz itzaliko da, larrialdi klimatiko egoera irudikatzeko.

BERASTEGI

19:00. Elkarretaratzea presoen alde, plazan.
19:30. Pintxo-potea herrian.

IRURA

SANMIELAK 2019

11:00. Jokoak haurrentzat (HH eta LH) San Migel plazan. Ondoren, buruhandi txikiak.
17:30. Gora Kasete haur ikuskizuna plazan, EIDABE taldearen eskutik. Eguraldi txarrarekin, Trinketea.
17:30. Patinete erakustaldia Skate parkean Muturreko Kirolak taldearekin. Eguraldi txarrarekin, frontoian.
18:30. Kalejira San Migel plazatik buruhandi eta erraldoiekin, Loatzko Musika Eskolako

txistulari eta trikitilariak ere parte hartuko dute kalejiran. Ondoren, txistor-jatea egingo dute Share Elkartearen.

22:30. Play Back jaialdia eta film laburren lehiaketako lanen emanaldia. San Migel plazan Ondoren, zuzeneko musika emanaldiak gazteen karpan, Ikastolako tabernan, Errekalde tabernan eta Enara tabernan.

TOLOSA

20:30. Kontzertua Leidor antzokian, Xabier Lizaso eta German Ormazabal piano jotzaileekin, eta Andoni Egaña bertsoariarekin: *Eta... zer gehiago?*

LARUNBATA IRAILAK 28

AMASA-VILLABONA

20:00. Kontzertua Amasako elizan: Maider Zabalegi. Urbil Artolarekin eta Gorka Urrarekin batera joko du. Sarrera doakoa izango da.

BIDANIA-GOITATZ

15:30. Kultur astearren barruan, Bidaniko frontoian, *X-en bila* mendi buelta, herritar guztientzat. Ondoren. Txokolate jatea.

IBARRA

22:00. Kontzertuak izango dira, Tolosako Ezpala gaztetxearen alde, gaztetxean: Orreaga 778, Exili eta Cuero taldeak. Sarrera: 5 euro.

IRURA

SANMIELAK 2019

12:00. San Miel Xare irekia Irurako Udala Sari Nagusia torneoaren finala trinketea.
13:00. Herri bazkaria doazenez mahaiak eta aulkiak jarriko dituzte plazan. Ondoren triki-potea.
14:00. Herri-bazkaria San Migel plazan: 14:00etan umeak, 14:30ean helduak. Bazkalostean, bazkaltiarrek jaso beharko dituzte mahaiak eta aulkiak. Ondoren, musika dantzagarria zuzenean, Olatz eta Xabi bikotearen eskutik.
19:00. Nafarroako Joten emanaldia Oliteko Escuela de Jotas taldearekin, eta Irurako Eguzki Goxo abesbatzaren emanaldia plazan.
23:30. Gaueko dantzaldia FAN&GO taldearekin.

TOLOSA

12:00. Tolosa Kantari, Tonto kaletik abiatuta.
13:00. Tolosako Musika Banda eta Tolosa Kantariaren kontzertua, Plaza Berrian.
17:00. Hitzaldia Tolosako kultur etxean, jabetze eskolaren eta Tolosaldea Garatzeneko migrazio sailaren eskutik: *Nik ere baditut ikasketak, nola homologatu?*

ALDABAKO SAN MIGEL JAIK

17:30. Jaien hasiera, txupinazoarekin eta txirrindulari igoerarekin.
20:00. Zahagi ardoa.
23:00. Bingo jokoa. Ondoren. Erromeria Elizagoien ahizpekin.

IGANDEA IRAILAK 30

ALEGIA

11:00. XIII. Artisanu eta Nekazal Azoka Berezia. Hainbat produktu eta erakusmahai jarriko dituzte, ohiko moduan, herriko plazan. Kamera analogikoekin argazkiak ateratzera animatu dituzte herritarrek. Karreteak udalak eskainiko dizkie

ASTEASU

10:00. Azoka eta ganadu erakusketa irekitzea.
11:00. Txekor erre pintxoak, eta taloak.
12:00. Arroz esne lehiaketako sari banaketa.



12:30. Esne behien erakustaldia.
18:00. Asteasuko trikitilariak.

BIDANIA-GOIAITZ

11:00. Kultur astearen barruan, hainbat produkturen erakusketa eta salmenta, trikitilariak, talogileak, sardinak, sagardoa eta txakolina. Horrez gain, garai bateko tresnen eta Saiaz Mankomunitatearen 25. urteurrenaren erakusketak izango dira ikusgai.

IRURA

SANMIELAK 2019

09:00. Diana txistulariekin.
11:00. Meza Nagusia. Ondoren, Irurako Lats dantza taldearen emanaldia Jarraian, hamaiketako herrikoa San Migel plazan.
17:00. Lur-ikara kabareta plazan, Pantzart Teatroyen eskutik.
18:30. Bertso saioa elizan. Gai-jartzailea: Maddi Sarasola. Bertsolariak: Miren Amuriza, Beñat Iguaran, Amaia Agirre eta Aitor Mendiluze.
21:00. Herensugea erretzea plazan Ondoren, azken-txotxa Errekalde tabernan, jai-batzordean zozketa bidez aukeratu.

TOLOSA

12:00. Tolosalsa. Latindar dantza zaleen topaketa Zerkausan egingo dute hilabete honetan, DJ Joxirekin.

18:30. Kontzertua 3 tabernan: Orkestrina Band Jazpana.

ALDABAKO SAN MIGEL JAIK

11:30. Meza nagusia.
12:30. Alegiako Sutarri dantza taldea.
13:30. Toka txapelketa.
14:00. Herri bazkaria.
18:00. Herri kirolak. Aizkolariak: Asier Pellejero eta Luis Txapartegi. Harri-jasotzailea: Inaxio Perurena.
* Egunean zehar, Izer eta Alabier.

ASTELEHENA IRAILAK 30

AMASA-VILLABONA

18:00. Furgo baratze tailerra. Betiko barazkiez gain, hainbat barazki berezi jarri dituzte baratzean.

TOLOSA

18:30. Hitzaldia kultur etxean: *Bizkarreko minari agur esateko 3 gakoak*. Judit Gijonek eskainiko du doako hitzaldia, eta 40 minutuko iraupena izango du.

ZIZURKIL

18:00. Euskarazko irakurketa kluba: *Kontrako ezarririk*. Uxue Alberdi idazlea ere bertan izango da.

ZINEMA

'AGURETXEBESTE'

Larunbata (19:30 / 22:30)
Igandea (19:30 / 22:00)
Astelehena (20:30)
Leidor aretoa, Tolosa.



'TOY STORY 4'

Igandea (17:00)
Leidor aretoa, Tolosa.



'PADRENO HAY MÁS QUE UNO'

Larunbata (19:30 / 22:30)
Igandea (19:30)
Astelehena (21:00)
Gurea antzokia, Amasa-Villabona.



'ELKANO, LEHEN MUNDUBIRA'

Igandea (17:00).
Gurea antzokia, Amasa-Villabona.



2^{mo}
progresibo,
erreflexuen
aurkako lenteekin
229€

Gure betaurreko guztiak
bilduma berrietakoak dira



Kontsultatu itzazu zure optikan kanpainaren ezaugarriak. Ezingo da beste eskaintza batzuetan erabili.

San Frantzisko, 23
Tel.: 943 69 84 70
TOLOSA

MULTIOPTICAS
lehena zerbitzu optikoetan

www.multioplicasgipuzkoa.com



Sagardoa gora ta sagarra lurrera



BIXENTE GOROSTIDI

Sagardozaleentzat
sagarra urre da
sagasti jabeentzat
ordea galera.
Aldatu, zaindu, inausi,
tratamendu, sega,
bilketa ere ezin
egin gerri-era,
kiloa euro erdira
gero ezin urrera,
hemengo sagar asko
sasi bazterrera,
kanpoko muztioa
merke kupelera,
presio ta prezio
gora azkar gainera...
Gu txotx, pix, txiri, txoro
ta Euskadi aurrera,
etxekalte galantak
gu horixe gera
sagardoa gora ta
sagarra lurrera.



Doinua

Prezioa bezala
doinua ahal dena

KOMIKIA GORKA SALABERRIA



TOLOSA

ONENETAN ONENA ERDI-PREZIOAREN ERDI-PREZIOAN

Eta orain...

**LEHENENGO
HILA DOAN!**

**19'9€
/mes**



euskaltel

EGURALDIA



GAUR

Eguraldiak zertxobait okerrera egingo du gaur. Goiz partean oraindik giro lasaia izango dugu, nahiko eguraldi argia, baina, eguerditik aurrera hai-zeak ipar mendebaldeko ukitua hartuko du, eta horrekin, eta fronte baten iritsierarekin, zerruan hodeiak ugarituko zaizkigu, eta euri pixka bat izango dugu. Euri txiki moduan gu-



**IKER
BARLUZEA**
EGURALDI
MUTILA

txi botako du, baina nahikoa izango da eguna trakestekoa. Tenperaturak zertxobait behera egingo du, eta 21-23 graduan joko du goia termometroak.

BIHAR

Eguraldiak hobera egingo du. Goiz partean, oraindik ere hodei dezente agertuko da, euri langar pixka batekin, egunsentian gehienbat. Goiz erdirako erabat atertuko du, eta eguerditik aurrera ostarteak irekitzen hasiko zaizkigu, eta arratsalde partean giro lasaia eta eguzkitsua geratuko zaigu. Haizeak ipar-ekialdeko ukitua izango du eta, eguzki ordu gehixeago izango ditugunez, tenperaturak berri-ere gora egingo du, 23-25 gradura iritsiz.

ETZI

Giro eguzkitsua izango dugu egun guztian zehar. Hodeixkaren bat edo beste agertuko da, batez ere eguneko lehen eta azken orduetan. Erdiko orduetan zerua ia oskarbi egongo da, eta oso eguraldi polita izango dugu. Hai-zeak ipar-ekialdeko ukitua izango du, baina, azken orduetan hego ukitua hartuko du. Bero puntu batekin, termometroa 25-27 graduan ibiliko da eguerdiko orduetan.

OSTIRALA
27



IGANDEA
29



LARUNBATA
28



ASTELEHENA
30



ZORION AGURRAK

Urtebetzeak,
urrezko
ezteiak,
ezkontzak,
jaioberriak
...

943 65 56 95

ataria@ataria.eus

San Esteban 20
Tolosa

FARMAZIAK



OSTIRALA, IRAILAREN 27A

TOLOSA

Egunekoa.

Eduene Bengoetxea Aiestaran.
Kale Nagusia, 7.
Telefonoa: 943 67 06 48.

LARUNBATA, IRAILAREN 28A

TOLOSA

Egunekoa.

Ignacio Olarreaga Aramburu.
Korreo kalea, 2.
Telefonoa: 943 67 0128.

IGANDEA, IRAILAREN 29A

TOLOSA

Egunekoa.

J.M. Echeveste Elosegui.
Gernikako Arbolen lorategiak, 3.
Telefonoa: 943 65 10 40.

ASTELEHENA, IRAILAREN 30A

TOLOSA

Egunekoa.

Cecilia Bronte Posada.
Korreo kalea, 20.
Telefonoa: 943 67 60 13.

EGUNERO GAUEKO GUARDIAKO FARMAZIA:

TOLOSA • Azpiroz, L.
Amarotz auzoa, 9.
Tel.: 943 67 5118.

ATARIA IRRATIA



OSTIRALA

09:00. Pasahitza Egune-ko berriak, Aintzane Artolaren errezeta, Alain Rekondoren telebista eta zinema gomendioak, Tolosaldeko alkateei elkarrizketa, gaurkoan, Gorka Murua Irurako alkatea.
12:00. Entzuteko jaiok Musika tarte-
16:00. Zebrabidea Arroza sareko magazina.
18:00. Goizeko saioen onena.

LARUNBATA

Egun osoan. Euskal musika.

IGANDEA

14:00. Hari Naizela Bertsolaritzari buruzko saioa, Imanol Artola Felix-ekin.

ASTELEHENA

09:00. Pasahitza Egune-ko berriak, asteburuari begirada, bidaiarien tarte-
Tolosaldeko alkateei elkarrizketa...
12:00. Entzuteko jaiok Musika tarte-
16:00. Zebrabidea Arroza sareko magazina.
18:00. Goizeko saioen onena.

107.6 fm

www.ataria.eus

28 KANALA



OSTIRALA

13:30. Gaurkoan Tolosalde-
12:30. Elkarrizketa (Dana D' capricho)
17:30. Gaurkoan Tolosalde-
21:30. Gaurkoan Tolosalde-
22:00. Gipuzkoako Bertsolari Txapelketa (Zumaia)
22:30. Izerditan
23:30. Gaurkoan Tolosalde-



ataria
argazki lehiaketa

Bozkatu hemen



Udako
argazki lehiaketa



Bi lagunentzako asteburu bateko egonaldia KURTZIA Landetxearen eskutik.

www.kurtzia.com 946840607 • 616945662 •
Kurtziaga auzoa, 11 - 48288 ISPASTER (Bizkaia)

Epaimahaiaren saria



Lau lagunentzako bazkari bat Inazio Urruzola txakolindegian

inaziourruzola.eus • 658 734 471 | 605 758 572
Arana Bailara, 18, 20494 Alkiza

ataria.eus-eko erabiltzaileen saria

zumardia
natura • hezkuntza • kirola

Zumardia elkarteak eskainitako bi neguko eski ikastaro zozkatuko dira.

https://www.zumardia.eus/
688 726 213 \ info@zumardia.eus

atarikide-en saria



harpidedun izateak badu saria saridunak

1 ARRIKRUTZ Oñatiko kobak

Espeleotxiki; abentura familian. Familiarentzako sarrera.

Umeak 6 urtetik gora izan behar ditu.
Bista eguna, taldea osatzean jarriko da.
943 08 20 00 / arrikruz@onati.eus / OÑATI

Bi hilabeteko epea saria erabiltzeko.

• Begoña Garmendia (Ikaztegieta)



2 DONOSTIAKO AQUARIUMA

Bi lagunentzako bina sarrera

- Karmele Sanz (Tolosa)
- Karmele Renobales (Alegia)

www.aquariumss.com

Bi hilabeteko epea saria erabiltzeko.



3 ALTZOA proiektua – Goiogana baserria

Bi lagunentzako gau bateko egonaldia (behe denboraldian)

- Xabino Alijostes (Tolosa)
- Itziar Baro (Tolosa)

altzoa.eus
AMOROTO – Bizkaia



Bi hilabeteko epea saria erabiltzeko. Aurrez deitu ostatura erreserba egiteko.

4 OSIN MASAJE ETA ESTETIKA ZENTRUA

Masajea

• Juan Jose Arrieta (Tolosa)



Bi hilabeteko epea saria erabiltzeko. Aurrez deitu zentzura lekua hartzeko



Loa kentzen dizun amets bakarra dago.



Audi A3 Sportback ALL-IN edition hilean 195 eurotik *

Amets asko dituzu, baina bakarrik kentzen dizu loa. Abiaduraren kontrol egokitua, 18"ko 'Audi Sport' hagunak, atzeko kamera eta Audi Smartphone Interface duen MMI nabitzailea dituen Audi A3 Sportback-a ez edukitzeak. Eskuratu hilean 195 euro ordainduta. Amesten duzun guztia lortzean, lo hobeto egiten baita.

www.audi.es/a3allin

Autowag Tolosa

Usabal industrialdea, z/g
20400 Tolosa
Tel. 943 67 35 81

Audi A3 Sportback ALL-IN edition 30 TDI 85 KW (116 CV) 6 vel. CO2 isurketak (g/km) : 142 (NEDC:118). Kontsumoa: (l/ 100km): 5,4

* Audi A3 Sportback 30 TDI 6 vel. ALL-IN edition-erako kalkulaturako Audi Financial Services eskaintza. Blanco Ibis ALL-IN edition, 36 hilabeteko Renting kontratuarekin eta guztira 30.000 kilometroekin. 5.299 euroko sarrera, eta finantzaketa Volkswagen Renting SA bidez eginda. Audi sare ofizialeko mantenu eta higatze zerbitzu guztiak barnebiltzen ditu, garantia (matxuren konponketa), frankiziarik gabeko arrisku oroko aseguru eta kontratatutako epealdirako bidaia laguntzarekin. Beste bertsio eta ekipamendu batzuetarako Audi kontzesionario ofizialetara jo. Audi Financial Services marka Volkswagen Renting SA-k merkaturatzen du.